

Irten zeure herritik – Sal de tu tierra



Helburuak

- Neska-mutilei laguntzea, haiek ere bidean protagonista direla kontura daitezen. Bide horrek gure oskoletik irtetea eskatzen digu, beste pertsonekin bat egitea, eta, era berean, JESUS AURKITZEA.
- Misiolarien bizimodua ezagutzea. Misiolariak, haien sorterrria, familia eta ingurua utzita, kanpora joaten dira, Jesusen berri ez dutenen artean fedea zabaltzera eta haiekin batera bizitzera. Beste helburuetako bat, beraz, misiolari-bokazioarekin zerikusia duten balioak lantzea izango da: unibertsaltasuna, ausardia, elkartasuna, laguntzeko prest egotea... Hori guztia, Jesusengan fedea izanez.
- Konpromiso txiki bat hartu.

IKUSI

KARTELA ETA GOIBURUA: Erakutsi kartela taldea osatzen duten neska-mutilei, eta esan dezatela zer pentsatzen duten kartelaren eta goiburuaren inguruan.

Elkarrizketa pizteko, honako galdera hauek edo egoki diren beste batzuk egin.

- Irteteak duen garrantzia

- Ezagutzen al duzue sorterritik alde egin behar izan duen inor? Zein herrialde utzi behar izan zuen, eta zergatik? (Guda, Lana, ikasketak, abentura, ...misiolariak)
- Zergatik uzten ote du jendeak bere herrialdea? Nolakoak izaten dira pertsona horiek?
- Zer iruditzen zaizue hori? Zer sentiarazten dizue horrek?
- Irtetearen garrantzia nabarmendu: (geure baitatik atera / besteengana atera).

Elkarrizketa piztu, guztion artean ikusteko zer-nolako eragozpenak izaten ditugun gure oskoletik ateratzeko.

Frantzisko aita santuak berak esana digunez, besteekin bat egiteko, irten egin behar dugu geure oskoletik, geure baitatik.

Nola egin dezakegu hori?

Norberekoikeriak alde batera utzi eta beste batzuegana –adiskideak, senideak...- jotzen dugunean ateratzen gara geure baitatik eta orduantxe laguntzen diegu eta garena eta daukaguna elkarbanatu egiten dugu.

Idatzi elkarrizketan agertu diren balioak, gero landu egingo ditugu eta. Balioak kartulina batean idatzi.

DINAMIKA: «Balio misiolarien makina»

Jarraibideak: Talde batzuk egin. Talde bakoitzari agertu diren balio bat eman.

Lurrean, irudizko eremua mugatu, eta talde bakoitzari eremu horretan kokatzeko esan, nahi duen bezala, egokitu zaion balioa adieraziz.

Gero, talde bakoitzari bere baliorako soinu bat eta mugimendu bat irudikatzeko esan, eta, katekistak seinale bat egitean, makina martxan jarriko da.

Ondoren, katekistak deskonektatu egingo du makina, eta talde bakoitzak azaldu beharko du zer balio irudikatu duen eta balio horrek zer adierazten duen haientzat.

Lan daitezkeen balioak:

- Laguntzeko prest egotea. Prestasuna
- Gure etxea mundua denez, munduari zabalik egotea. Unibertsaltasuna
- Ausarta izatea. Ausardia
- Eskuzabala izatea. Elkartasuna
- Gure oskoletik irtetea....
-

AZTERTU

Balio horiei buruz hitz egin ondoren, entzun dezagun Jesusen hitza.

IRAKURGAIA

Lukas 10, 1-9

«Ondoren, Jaunak beste hirurogeita hamar ikasle izendatu, eta bere aurretik bidali zituen, binaka, bera joatekoa zen herri eta toki guztietara.

Eta esan zien: “Uzta ugaria da, baina langileak gutxi dira. Beraz, erregutu uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara.

...

Ez eraman poltsarik, ez zakurik, ez oinetakorik....

Edozein etxetan sartzen zaretenean, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei”.

Han bakezalerik baldin badago, haren gain kokatuko da zuen bakea; bestela, hutsean geldituko da zuen agurra.

Geldi zaitezte etxe berean, eta jan eta edan daukatenetik, langile guztiek merezi baitute saria.

....

Herriren batean sartu eta ongi hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaeizue: "Iristear dago Jainkoaren erregetza".

Irakurgaia entzun ondoren, dinamikan agertu diren balioak aipatu. Zer-nolako harremana dago balio horien eta irakurgaiaren artean?

- Ikasleak beraien lurraldetik atera dira (norberekeriatik atera dira).
- Eragozpenei aurre egiteko prest daude (ausartak dira).
- Beste leku batzuetara joateko prest daude (munduari zabalik daude).
- Bakea zabaltzen dute (eskuzabalak dira).

Jesus ere «atera egin zen bere herritik».

Misiolariek Jesusen ereduari jarraitzen diote.

Misiolariak gizon-emakumeak dira, Jesusen deia entzutean beste leku batzuetara joaten direnak Ebanjelioa zabaltzera. Horretarako, utzi egiten dituzte haien herria eta familia, eta urrutiko lurraldeetara joaten dira, beste pertsona batzuen artean fedea zabaltzera, beste herrialde batzuk ezagutzera, elkarrengandik ikastera, eta berri ona ematera: mundua zuzenagoa izatearen alde lan egitean, Jainkoaren seme-alaba sentitzen gara guztiok.

EKIN

KONPROMISOA

Eta GU... nondik atera gaitezke, eta nora jo dezakegu?

- Nola bihur gaitezke misiolari orain eta hemen?
- Zer egin dezakegu gure familian eta gure lagunekin gure oskoletik ateratzeko eta besteekin bat egiteko?
 - Laguntzeko prest gaudela erakutsi.
 - Beste pertsonekin bat egiteko prest gaudela erakutsi.
 - Elkartasunaren erakusle den zerbait egin.
 - Ausardiaren erakusle den zerbait egin.

DOMUND ospatzea oso aukera ona da beste pertsonekin bat egiteko; eskolakoekin, katekesikoekin eta abar.

OTOITZA

Katekesi-saioa bukatzeko, egin dezagun, denon artean, Domund 2016ko otoitza, eta zabal dezagun kanpainaren mezua; era berean, jardunaldian parte hartzera animatuko ditugu hurbilekoak.



Irten zeure herritik – Sal de tu tierra



Objetivos

- Ayudar a los niños y niñas a descubrir que también ellos son protagonistas en el camino de encuentro con Jesús. Que ese camino implica salir de nosotros mismos, de nosotras mismas para ir al encuentro de otras personas, y así encontrarnos con Jesús.
- Conocer la vida de los misioneros y misioneras, que salen de su tierra, de su familia, de su entorno, para ir a compartir la fe y la vida con otras personas que aún no conocen a Jesús. Trabajarlo a través de los valores que forman parte de la vocación misionera como la solidaridad, la valentía, la universalidad, la disponibilidad... desde la fe en Jesús.
- Concretar un pequeño compromiso.

VER

CARTEL Y LEMA: Presentamos al grupo el cartel y les pedimos que vayan diciendo qué les sugiere tanto el cartel como el lema.

Abrimos el diálogo por medio de estas preguntas u otras que nos puedan ayudar.

- ¿Conocemos a personas que han salido de su país? ¿De qué países? ¿Por qué han salido? (Guerras, Trabajo, estudios, aventura,...los misioneros y misioneras)
- ¿Qué puede llevar a una persona a salir de su tierra? y ¿cómo son estas personas? (Destacar algunos valores positivos: valientes, dispuestas a salir de su tierra, abiertas a conocer otras personas,...)
- ¿Qué nos parece? ¿cómo nos sentimos ante esto? ¿qué sentimientos nos provoca.
- Destacar la Importancia de salir de nosotros mismos (timidez, egoísmo,...) para salir hacia los demás.

Iniciar un diálogo para descubrir entre todos y todas las pequeñas dificultades que encontramos para salir de nosotros mismos.

El papa Francisco nos dice también que necesitamos salir de nosotros mismos; solo así podemos salir al encuentro de los demás.

¿Cómo lo hacemos?

Lo hacemos cuando dejamos atrás el egoísmo y vamos hacia otras personas: amigos, familia,... para ayudarles y compartir con ellos lo que somos y tenemos.

La catequista recoge los valores que van saliendo en el diálogo para trabajarlos en la dinámica. Se escriben los valores en unas cartulinas.

DINÁMICA: “La máquina de los valores misioneros”

Instrucciones: Se hacen grupos. Se entrega a cada grupo un valor de los que han salido en el diálogo.

Después, la catequista delimita un espacio imaginario en el suelo y pide a cada grupo que se coloque en el espacio, de la forma que quiera, representando su valor.

Después pide que cada grupo imagine un sonido, un movimiento para su valor y a una señal la máquina imaginaria empieza, se pone movimiento.

Después, la catequista desconecta la máquina y, en las mismas posiciones, pide a cada grupo que cuente qué valor ha representado y qué aspectos ve en él.

Posibles valores a trabajar:

- Estar dispuesta, Disponibilidad
- El mundo es nuestra casa. Estar abiertos, abiertas al mundo Universalidad
- Ser valiente. Valentía
- Ser solidario, Solidaridad
- Salir de nosotros mismos, de nosotras mismas Generosidad
- ...

JUZGAR

Tras hablar de estos valores, escuchamos lo que nos dice Jesús.

LECTURA DE LA PALABRA

Lucas 10, 1-9

“Después de esto, el Señor designó a otros setenta, y los envió de dos en dos delante de El, a toda ciudad y lugar adonde El había de ir.

Y les decía: La cosecha es mucha, pero los obreros pocos; rogad, por tanto, al Señor de la mies que envíe obreros a su cosecha.

...

No llevéis bolsa, ni alforja, ni sandalias;

...

En cualquier casa que entréis, decid primero: "Paz a esta casa."

Y si hay allí un hijo de paz, vuestra paz reposará sobre él; pero si no, se volverá a vosotros.

Permaneced entonces en esa casa, comiendo y bebiendo lo que os den; porque el obrero es digno de su salario. ...En cualquier ciudad donde entréis y os reciban, comed lo que os sirvan; sanad a los enfermos que haya en ella, y decidles: "Se ha acercado a vosotros el reino de Dios."

Después de escuchar la lectura se colocan los valores que han salido en la dinámica. ¿Qué relación hay entre estos valores y la lectura?

- Los discípulos salen de su tierra (salen de casa, de su seguridad,..)
- Están dispuestos a encontrarse con dificultades (son valientes)
- Están abiertos a ir a otros lugares (Disponibilidad ..)
- Llevan la Paz son solidarios generosos (son solidarios)

Jesús también "sale de su tierra".

Los misioneros y misioneras siguen el ejemplo de Jesús.

Los misioneros son hombres y mujeres que, al escuchar la llamada de Jesús a ir a otros lugares a anunciar el Evangelio, salen de su tierra, dejándolo todo. Ellos marchan a países lejanos, para estar con otras personas, compartir la fe, para conocer otros pueblos, para aprender mutuamente, para comunicar la Buena Noticia: para trabajar por un mundo más justo en el que todas las personas nos sintamos hermanas e hijas de Dios.

ACTUAR

COMPROMISO

Pero... Y NOSOTROS Y NOSOTRAS ¿de dónde podemos salir y a dónde ir?

- ¿Cómo podemos convertirnos en misioneros ya desde ahora y desde aquí?
- ¿Qué gesto concreto podemos hacer en nuestra familia, con nuestros amigos para hacer realidad eso de salir de nosotras mismas para encontrarnos con los demás?
 - Un Gesto de disponibilidad
 - Un Gesto de estar abiertos a aceptar a todas las personas
 - Un Gesto de solidaridad
 - Un Gesto de valentía

Celebrar el DOMUND es una oportunidad para ir al encuentro de otras personas, del grupo de la clase o de la catequesis.

ORACIÓN

Terminamos la sesión de catequesis rezando juntos la oración del Domund 2016 y animamos a difundir la campaña y a participar en la celebración de la jornada.

